



'Natura asaldatua' jardunaldiak, datorren astean zehar Tolosan

SAIOAK ▶ Hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira, goi mailako adituen eskutik, tartean Miguel Delibes ▶ 2



Natur jardunaldietako antolatzaileak eta erakundeen ordezkariak atzoko aurkezpenean Donostian. HITZA



IÑIGO TERRADILLOS

Omenduek zabaldu dute II. Garagardo Festa

IBARRA ▶ Gazte Asanblada, Gari Uranga futbolaria, 'Xandalio' eta 'Boli' mendizaleak izan dira zerbeza edaten lehenak ▶ 6

Errementari kalea z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30
LENTZERIA

NEREA
1952

**GIZON eta
MUTILENTZAT**
pijamak, boxer's
bainujantziak

EGURREZKO ALTZARIAK:
GAZTAINONDOA, GEREZIA ETA HARITZA



Gaurko diseinu
eta kolore berriak,
beti egurrean.
www.lasao.com



Lasao industrialdea • 20730 AZPEITIA • 124 Postakutxa
Tel.: 943 15 11 82 • Faxa: 943 15 10 98
E-mail: informacion@lasao.com

EKONOMIA ▶

‘Nola egin eragiketak on-line finantza erakundeekin’: Miramon Enpresa Digitalaren mintegi-ziklo berria da

Hilaren 26an izango da Tolosako autonomoentzat eta mikroenpresentzat; izen-ematea zabalik

I. ETXEBESTE

«Asko dira egunero enpresek finantza erakundeekin egiten dituzten eragiketak, beren neurria edozein izanik ere: ordainagiriak helbideratzea, ordainketak, kobrantza, transferentziak... Orain dela ez urte asko arte nahiaezkoa zen finantza erakundeetara noizean behin bisita egitea. Orain, Interneti esker, tokiz aldatu gabe egin ditzakegu eragiketa horiek guztiak, noiznahi. Azken batean, teknologia berrieekin denbora eta kostuak aurreztu egiten ditugu». Hitz horiekin

eman dute Miramongoek eragiketak on-line egin ahal izateko egin duten mintegi-zikloen proposamen berriaren berri.

Enpresa Digitala Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimena da, eta «enpresaren barneko eragileak sentsibilizatzea eta prestatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea lehiarako zein garrantzitsuak diren ohar daitezen, eta informazioaren gizarterako bidean aurrera egitea» ditu helburu. Horrez gain, sarean negozio berriak garatzen laguntzen die ekono-

mia berriko profesionali gaitzuntza eta laguntza eskainiz.

Hala, *Nola egin eragiketak on-line finantza erakundeekin* izeneko mintegi-zikloen proposamen berria egin du Miramon Enpresa Digitalak oraingoa. Mintegi-ziklo hori eGipuzkoa 2005 ekintza planaren eta Euskadi Informazioaren Gizarte planaren baitan dago, bi erakunde horien helburu baita, besteak beste, «Gipuzkoa lurralde aurreratua izatea enpresak informazioaren gizarteran sartzeari dagokionean, konektatzeko aukeren eta merkataritza elektronikoa garatzearen

bitartez». Helburu horretan sarkontzeko, hain juxtu, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, Miramon Enpresa Digitalaren bidez, beren ohiko jardun eremutik harantzago joan, eta beren prestakuntza lana zabaltzearen aldeko apustua egin dute ikasturte honetan, eta horretarako, autonomoei eta mikroenpresei zuzendutako mintegiak antolatu dituzte Gipuzkoako hainbat herritan.

Bada Tolosako autonomoek eta mikroenpresek Miramon Enpresa Digitalak antolatutako hurrengo mintegi-zikloak izango dituzte hilaren 26an, eta au-

rreko aldietan bezala, Tolosaldeko Goi Mailako LHIn izango dira, 18:00etatik aurrera.

Bi bide izena emateko

Mintegi-ziklo horretan izena eman nahi dutenek edo informazio gehiago lortu nahi dutenek 902 252 595 telefono zenbakira deitu beharko dute, edo cursos@miramondigital.com helbidera mezu bat bidali.

Formazioa jasotzeaz gain, oraindik SPRIK eta Enpresa Digitalak elkarrekin argitaratu duten bilduma teknologikoaren lehenengo bi aleak eskuratzeko aukera izango dute ekimenean izena ematen dutenek. Era berean, hemendik aurrera aterako diren liburuxkak jasotzeko modua ere eskainiko dute. *Zer egin birus informatikoen aurrean* eta *Zabor-poltsa nola eragotzi* dira liburuak.

GIZARTEA ▶

IRATXE ETXEBESTE

«Naturaren gaineko jardunaldiak, Tolosan bilduko da denon eginkizun den naturaren zaintzaz hitz egiterakoan hitza, ahotsa, sen onaren doinu bihurtzen duen jende asko eta asko. Oihartzun handia eragingo duten ahotsak dira, dudarik gabe; komunitate zientifikoak ingurumenaren osasuna delatela eta Lurra deritzan ontzi honetan goazeno bidali digun diagnostia ulertzen lagunduko duten ahotsak». Modu horretara egin dute Tolosako Naturari buruzko Jardunaldien antolatzaileek ekimenaren aurkezpena, eta horretarako bildu ziren atzo, hain zuzen, sustatzaileak Eusko Jaurlaritzak Donostiako Andia kalean duen egoitzan.

Natura asaldaturia izena jarri diete aurtengoan jardunaldi horiei, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen zuzendari Aitor Aranguren eta Mendi eta Natur Ingurune zuzendari Jose Maria Aldanondok, Tolosako alkate Jokin Bildarratzek eta Jardunaldien zuzendari Xole Martinek datorren astean herrian izango diren ekimenen inguruan eman zituzten azalpenak.

«Aste honetan, ke kaltegarrien gainean hitz egingo digute, gasekin ere komerziarrik badela esango digute, planeta behar baino gehiago berotuta dagoela, lurta asko eta asko dilteraino gaixotzen dela... Ez baina, hala ere, ez dugu esperantzarik galdu behar, garaiz baikabiltza oraindik ere. Gure

‘Natura asaldaturia’ jardunaldiak, abian

Hilaren 23tik 27ra bitartean, hitzaldiak eta mahai-inguruak eskainiko dituzte adituek udaletxean; 20:00etan hasiko dira



Natura asaldaturia jardunaldien antolatzaileak eta sustatzaileak, atzo, Donostian, ekimena aurkezten. HITZA

planeta honek, guk dugun planeta bakar honek, gaitz asko ditu, baina irtenbidea bat besterik ez: informatzea, jakiteko; jakitea, sentsibilizatzea; sentsibilizatzea, konprometitzeko; eta konprometitzea, ekiteko».

Horren harira, eta egin beharreko ekintzak aipatzen hasita, herritar guztiek «Lurraren taupadak hain taupadak direla sentitu» behar dutela irizten diote adituek. Izan ere, «aldaketa eta esperantza garaia» delakoan dira antolatzaileak: «Ez diogu arrazoirik eman behar, inondik ere, gizakia aske izan eta bere burua suntsitzeko

gauza den izaki bakarra delatzen esamoldeari. Mahai gainean dugu erronka: bere baitan garamatzen Lurra izeneko ontzia babestea, geure burua babesteko. Ez dugu ahaztu behar, ordea, denona eta denontzat dela erronka».

Natura asaldaturia izenburupeko natur jardunaldiak hilaren 23tik 27ra izango dira, eta horien baitan, hitzaldiak eta mahai-inguruak emango dituzte gai batean eta bestean aditu direnek; guztiak ere udaletxeko batzar aretoan izango dira, zehaztutako egunetan, 20:00etan hasita:

ASTELEHENA, 23

Hitzaldia. *Naturaren indarrak. Fenomeno natural bat nola bihurtzen den hondamendi.*

Hizlaria. Ramon Ortiz Ramis, CSIC-eko Bolkanologia departamentuko kide eta ikerketa irakaslea.

Aurkezlea. Felix Ares de Blas, Miramon Zientziaren Kutxa-Guneko zuzendaria.

ASTEARTEA, 24

Hitzaldia. *Klimaren misterioak. Erotu egin al da klima?*

Hizlaria. Millan Millan Muñoz, CEAM Fundazioaren zuzendari exekutiboa.

Aurkezlea. Pello Zabala, Euskadi Irratiko eguraldi gizona.

ASTEAZKENA, 25

Mahaingurua. *Kyotoko protokoloa.*

Hizlariak. Iñaki Ezkurra, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordea; Maria del Mar Asuncion, ADENAKO Klima aldatetari buruzko programaren arduraduna eta Francisca Olarraga, Iberdrolako Ingurumen Prospektiba departamentuko kidea.

Aurkezlea. Sabino Ormazabal, kazetaria.

OSTEGUNA, 26

Mahaingurua. *Bioinformatikaren eusteko estrategiak EAEn.*

Hizlariak. Iñaki Aizpuru, Gipuzkoako Foru Aldundiko Parke Naturaletako atalburua eta Mikel de Francisco, IKT, SAKO Inguru Naturaleko arloaren arduraduna.

Aurkezlea. Miren Askasibar, biologoa eta paisajista.

OSTIRALA, 27

Hitzaldia. *Bioinformatikaren krisialdia.*

Hizlaria. Miguel Delibes de Castro, CSIC-eko ikerketa irakaslea.

Aurkezlea. Pedro Miguel Etxenike, Donostia International Physics Center-eko lehendakaria.

MUSIKA ▶

XI. MUSIKARIA ▶ EGITARUA

Herri musika tresnen topaketak emango dio hasiera, bihar, XI. Musikariari. Astebetetz, egongo da zer entzunik herriko txokoetan:

BIHAR, LARUNBATA

Goizean. Herri musika tresnen topaketa: trikitilariak, dultzainariak, txalapartariak eta albokariak ariko dira kalez kale.

HILAREN 23A, ASTELEHENA

19:00. Haizearen orrazia haize boskotearen kontzertua, Musika Eskolan.

HILAREN 24A, ASTEARTEA

19:00. Jeshmar Musika Elkarteak Zapora Latinoa-ren emanaldia, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 25A, ASTEAZKENA

19:00. Donostiako Musika Eskolako Akordeoi Orkestra, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 26A, OSTEGUNA

19:00. Errenteria Musikaleko Orkestraren kontzertua, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 27A, OSTIRALA

20:00. Tolosako, Beasaingo, Andoaino eta Hernaniko perkusiojoleen jarduna, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 28A, LARUNBATA

19:30. Tolosako Musika Bandaren emanaldia, Berdura Plazan.

Musikaren haritik

Herri Musika Tresnen Topaketak emango dio hasiera, bihar, Musika Eskolak antolatutako XI. Musikariari; hilaren 28a arte egongo da zer entzunik, non-nahi

LEIRE MONTES

Iritsi da urteroko hitzordua. Betiko legez, Eduardo Mokoroa udal musika eskolak musika astea antolatu du: XI. Musikaria. Bihar hasiko da, Herri Musika Tresnen topaketarekin, eta hurrengo larunbata arte egunero egongo da ekitaldirik.

Musika eskolakoei adierazi dutenez, «aurtengo Musikariara gure musika eskolan aritu diren eta aurrera egin duten ikasleak gonbidatu ditugu». Egunero, asteartean izan ezik, ariko da ikasle ohiren bat.

Dultzaina ikasleek, esaterako, Giroarte taldea osatu dute, «eta gure herria girotzen aritzen dira». Bihar, beste hainbat dultzainarekin, trikitilarekin, txalapartarekin eta albokariarekin batera jardungo dute Tolosan.

Asteleheneko kontzertuan, bestalde, Ekhiñe Olano ikasle ohiak hartuko du parte, Haizearen Orrazia haize boskotearekin. «Tronpa ikaslea da Ekhiñe, eta egun Musikenen, Donostiako Goi Mailako Eskolan, ari da ikasten».

Perkusioko ikasleak Andoaino, Beasaingo eta Hernaniko Musika Eskoletako ikasleekin batera ariko dira datorren ostiralean, hilaren 27an.

Beste ikasle batzuek, berriz, partaide ez diren taldeekin jardungo dute Musikarian. Goizargi Iglesias tronpajoleak, besteak beste, asteazkeneko kontzertuan hartuko du parte, Donostiako Musika Eskolako akordeoi orkestrarekin. «Egun Donostiako kontserbatorioan ikasten du Goizargik, eta laster Alemaniara joango da, bira bat egitera», azaldu dute Musika Eskolakoei.

Helena Orcoyen ibartarrak ere parte hartuko du Musika



Dultzaineroak eta erraldoiak, San Frantziskotik igarotzean, iaz, X. Musikarian. HITZA

Hasteko, kalejiran

Eduardo Mokoroa udal musika eskolak antolatutako XI. Musikariaren baitan, herri musika tresnen topaketa izango da bihar. Iñaki Salvadorrek zuzentzen duen Giroarte dultzaina taldeak hartu du topaketa prestatzeko ardura.

Iparraldetik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik etorritako dultzainariak, albokariak, trikitilariak eta txalapartariak hartuko dute parte topaketan. Hain zuzen ere, Lutxanako dultzainariak (Bizkaia), Baionakoak, Barakaldoko Albokari Taldea (Bizkaia) izango dira bihar Tolosan, Ibarrako txalapartariarekin, Asteasuko eta Anoetako trikitilariarekin eta

Tolosako Giroarte dultzaina taldearekin batera.

10:00etan hasiko da festa. Taldeek kalejira egingo dute Alde Zaharretik zezen-plazaraino, giroa alaituz; talde bakoiak bakarka jardungo du, baina pieza batzuk elkarrekin joko dituzte. 11:30ean, Laier tabernak eskainitako hamaitakoaarekin sabela betetzeko aukera izango dute guztiak. 12:00etan kalejirari ekingo diote berriro, eta 14:00etan bazkaltzeko elkartuko dira musikariak, Ibarrako Danon Txokoa tabernan. Bazkalostean ere izango dute aukera haien festari doinua jartzeko. ◀

Astean, ostegunean, Errenteriako ganbara orkestrarekin eta Tolosako Musika Eskolako abesbatzarekin batera. «Egun Donostiako kontserbatorioan kantua ikasten ari da Helena, eta errezitaz asko eman ditu han eta hemen».

Azkenik, Tolosako Musika Bandak datorren larunbatean, hilaren 28an, joko du. Musika Eskolako ikasle askok jotzen du bertan; gainera, Enrike Arostegi ikasle ohiak zuzenduko du kontzertua.

Aurrematrikulazio epea

Bestetik, musika eskolako aurrematrikula egiteko epea hilaren 31 arte zabalik dela jakinarazi dute. Dagoeneko ikasle denarentzat eta eskolan ikasi nahi duenarentzat da deialdia.

ANTZERKIA ▶

Agirregomezkorta bakarrizketan, gaur, Iratxon

Andoni Agirregomezkorta aktorearen bakarrizketa antolatu dute, gaur, Iratxo tabernan. Agirregomezkorta ezaguna da ETB2ko *Vaya semanita* saioarengatik, eta zenbait iragarki ospetsu ere egin ditu aktoreak. Gaueko hamaiketan hasiko da emanaldia.

MUSIKA ▶

Kaotiko eta Silikonay, gaur, Bonberenean



Kaotiko-ko kideak. HITZA

Kontzertuz betetako asteburuan antolatu dute, beste behin, Bonbereneakoek. Gaurtik etzira, egunero izango da zuzeneko emanaldirik etxean. Gaur, esaterako, Kaotiko ta Silikonay taldeek joko dute etxean, 22:30ean. Zuzeneko kontzertuekin disko indartsua kaleratu berri dute Aguraingoek; Silikonay talde gasteiztarrak, bestalde, bere maketa aurkeztuko du Bonberenean. Bihar, ordu berean, Zein? eta Captain Nemo taldeek eskainiko dute kontzertua; bi talde hauek izan dira aurretik etxean. Eta igandean, azkenik, Joserra Senperenaren eta Ramon Agirrearen emanaldia izango da entzungai, 19:30ean.

ASIALDIA ▶

Kirikiño egunerako izen-ematea zabalik

Kirikiño taldeak bere eguna ospatuko du hilaren 29an, igandean, Altzon. Izen-ematea hilaren 25a arte zabalik dagoela gogoratu dute aisialdi taldekoek. Era berean, «meska-mutilak, familiak eta begiraleak, guztiak» gonbidatu dituzte ospakizun egun horretara. Informazio gehiago nahi duenak www.hiruki.de.org webgunean aurkituko du.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

AHT Gelditu! Bazterketarik ez! Gora Anoetako jai alternatiboak!

Ez bat eta ez bi, baizik, lau arrazoi hauengatik, PNV-EAren Udala salatu eta Anoetan, maiatzaren 20tik 29ra antolatuta diren jai alternatiboetan parte hartzera deitzen dugu:

Lehenengo arrazoia. Abiadura Handiko Trenaren (AHT) proiektua bi mailatan jartzen dugu auzitan. Batetik, ingurumenari eragingo lizkiokeen kalte larriren mailan; baina bestetik, eta oso nabarmenki, gizarte arloan (ekonomian, nekazaritzan, lurraldearen orekan...) nozitikoen genituzkeen ondorioen mailan ere bai. Honenbestez, AHT

geldiaraztea bezain garrantzitsua da bere atzean gordetzen den gizarte garapen eredu kapitalista erabat zalantzan jartzea. AHT ez da langile, baserriar, dendari, ikasle eta herritarren gehiengoaren interesen aldekoa, baizik eta, konstruktora erraldoi, nazioarteko enpresen, eta banku handien negozioarako izango litzateke. Horregatik, PNV-EAK, AHTren proiektu faraoiko eta elitista hau bultzatuz, interes kapitalisten alde egiten duela salatzen dugu.

Bigarrena. AHTren proiektuak herriko naturan eta anoetarron bizi kalitatean dakartzan kalteak handiak dira eta aldi onurak bat bera ere ez. Gain-Berri etxea bota nahi dute. AHTren zarata trazaketa guztian larritzat jotzen da. Kalkulatuenez, trenbidearen bi alde-

tara 250 metroko tartean, onargarritzat ematen diren mailak gaindituko dira. Beraz, etxe askotan zarata arazo gogorak jasango dira. Eta 20 metro inguruko altura izango duen zubibide zatarrak eraikiko dute. Bi tunel zuluatu beharko dira ere. Bata Basagain eta Goiballara azpitik pasako dena, 2.270 metroko luzera izango duena. Bestea, Isasti azpitik pasako dena, 1.320 metroko luzerakoa. Tuneletatik eta obretatik ateratako soberakinak botatzeko herrian kokatuko diren bi hondakindegia zehaztu dituzte eta lurrak jabeei expropiatzeko urratsa prestatzen ari dira. Isastin, 561.972 metro kubiko bota nahi dituzte eta Barrundi baserriaren atzean, Larratz bezala ezagutzen den tokian 99.509 metro kubiko. Baita emergentziarako 5 metroko

zabalera izango duten hainbat bide berri eta plataforma ere eraiki nahi dituzte, eta abar. Hortaz, Anoetako PNV-EAK, herritarren ongizatearen gainetik, alderdiaren interesak jartzen dituela gogor gaitzetsi nahi dugu.

Hirugarrena. Udalak erantzunkizun handia du proiektu honen inguruan nozitzen ari garen desinformazioan. Behin eta berriz, hau da Udalari egiten diogun eskaria: AHTren egitasmoak eragingo litzuzkeen ondorioen informazioa bildu, zabaldu eta eztabaida bultzatu beharko lukeela Udalak. Ondoren soilik erabakia hartu beharko litzateke. Udalak, informazio eta eztabaida prozesua eman arte, proiektua gelditzeko bitarteko guztiak jarri beharko litzuzke. Ez da hau guztiz demokratikoa?

Laugarrena. Proiektua gelditze-lanean ari den Anoetako AHT Gelditu! Elkarlana taldea eta baserriarrek adierazitako iritzia baztertzuz ari da. Nola justifikatu dezakete, AHTgelditzeko hainbat arlotan emandako borroka trinkoa eta arrazoitua kontuan hartuta, proiektuaren aurrean eurek erakusten duten isiltasuna? Isiltasuna horren bidez, Anoetako Udala, Eusko Jaurlaritzaren inposatze-egitasmoaren laguntzaile bihurtzen da.

Guztiagatik, *Gora herri borondatearen aldeko jaiak* lemarekin antolatuta diren jai alternatiboetan, jai eta giro atseginean protesta egitera animatzen zaituztegu.

MIKEL LARRION ETA MANU ODRIOZOLA
(ANOETAKO AHT GELDITU!
ELKARLANAREN IZENEAN) ▶ ANOETA

VILLABONA ▶

Katekesi ikasturteari amaiera jai

Katekesiaren ikasturteari amaiera emateko haur danborrada egingo da gaur, 19:00etan. Ibilbidea Satorran hasi eta bertan amaituko da. Katekesia egiten duten haur guztiek hartuko dute parte. Danborra jotzen 4., 5. eta 6. mailakoak ariko dira.

ANOETA ▶

Sinadura bilketa AHT proiektua geldiarazteko

AHT Gelditu! Elkarlanoek sinadura bilketa egingo dute bihar eta etzi Anoetan, AHTren proiektua berehala gelditzea eskatzeko. AHTren inguruan ondo informatu behar dela eta eztabaida sakon eta serioaren ondoren soilik, proiektuari buruz erabakiak har daitezke eskatuko da.

LARRAUL ▶

6 K Ote taldearen kontzertua Herri Ostatuan

Kontzertu berezia izango da gaur gauean, 22:30ean hasita, Larraulgo Herri Ostatu jaitezean. 6 K Ote izeneko so-kazko seikoteak eskainiko du entretenimenduzko kontzertua. Bi bibolin, biola bat, txelo bat eta kontrabaxu bat, pianoaz lagundurik ariko dira musika emanaldia eskaintzen.

VILLABONA ▶

Lehen urteurrena ospatzen ari da Onddo Gaztetxea hil honetan

Ekitaldi ugari antolatuta dituzte lehen urtea ospatzeko; etorkizuna, baina, ilun ikusten dute Gaztetxeoek

IMANOL GARCIA

Onddo gaztetxeak urtebete egiten du hil honetan. Villabonako Gaztetxearen historia luzeagoa da, ordea. Plaza Berduran zegoen eraikinean zegoen Gaztetxea, baina eraikin hori bota egin zen. Orduan, lehen Fleming eskola zegoen eraikinean lokal bat hartu zuten. Baina «gazte batzuek bakarrik erabiltzen zuten lokal batean bihurtu zen», azaltzen dute Onddo gaztetxeoko zenbait kidek, eta Gazte Asanbladaren mugimendua itzaltzen hasi zen.

Baina, denbora bat igaro ondoren, gazte koadrilak berriro biltzen hasi ziren eta eraikin berdinean, beste lokal bat atontzen hasi ziren. Horrela, 2004ko maiatzean jai-parranda antolatuta zuten. «Pijamaz jantzi ginen eta kideetako bat eguzkiz mozorrotu zen. Horrela, *eguzkia* atera zen Gaztetxe berritik eta esnatu egin gintuela irudikatu genuen, berriro martxan geundela». Orain hila-bete honetan hainbat ekitaldi antolatuta dituzte, jende guztiei zuzenduta.

Etorkizunera iluna ikusten dute Gaztetxeoek: «Ekaina al-



Grafiti erakustaldia izan da egindako ekitaldietako bat. ASIER ETXANIZ

EGITARAU ▶ ASTEBURUKO EKITALDIAK

GAUR

17:30. Ipuin kontalaria umeentzat eta merienda Gaztetxean.

22:30. Disturbio eta Txinaski taldeekin kontzertua.

BIHAR, LARUNBATA

11:00. Buruhandiak, Loatzo musika eskolakoek alaiturik, Errebote plazatik.

dera edo bota egingo dute lokala dugun eraikina. Hitz politak esaten dituzte Udaletik, baina oraindik ez digute loka-

16:30. Gazteekin arteko jolasak, Gaztetxean. Ondoren *trikipoteomanifa*.

20:00. Afari-merienda, Gaztetxean.

21:00. Kontzertuak Nun-bait, Afonia eta Stupenda Jones taldeekin.

ETZI, IGANDEA

20:00. Kantaldia Etxerik, Gaztetxean.

lik eman. Lokalik izan gabe, indarririk gabe noiz gelditzen garen zain daude, ea pixkanaka desegiten garen».

ANOETA ▶

Koadrila Eguna egingo dute bihar herriko jaien baitan

I. GARCIA

Laugarren urtea da aurtur Koadrila Eguna ospatzen dutela, herriko jaiak direla aprobetxatuz. Bihar egingo diren ekitaldiak, jaietako bi egitarauetatik antolatuta dituzte. 18 koadrila bildu dira antolakuntza lanak egiteko eta 200 bat pertsona bilduko dituzte egingo diren ekitaldietan. Koadrila bakoitzak bere zeregina izango du. Antolatzaileek azaldu dutenez, jende ugari eta adin guztietakoak biltzen dira giro onean. Antolatuta duten egitarauan jan eta edateko aukerak ez dira faltako, behintzat.

12:30ean hasiko dira ekitaldiak txupinazoarekin. Koadrila bakoitzak suziri bat botako du. Horren ondoren, Jaiak Blai eta Plastikuz koadrilek irakurriko dute pregoia, aurreko urteko jolasetako irabazleak izan zirenez. Pregioa zabaldu ondoren, trikipoteoa egingo da. 14:00etan frontoian bazkaria egingo dute eta ondoren, 16:00ak aldera, koadrilen arteko jolasak egingo dituzte. Eguraldi onak laguntzen badu plazan egingo dituzte eta bestela frontoian egingo dute. Jolasetan egindako ahaleginean ondoren, poteoa egingo dute musikaz alaituta. Egunarekin bukatzeko eta gauari ongietorria emateko, afaria egingo dute 21:00etan frontoian.

ALBIZTUR ▶ KULTURA

Nahi adina aukera X. Kultur Asteko ekitaldietan

Aurreko ostiralean hasi eta ekainaren 5a bitarte iraungo dute Udalak eta Arkaitz elkarteak antolatutako ekitaldiek



Aurten herriko plazatik abiatuko da maiatzaren 29ko ibilaldia. Argazkian iazko Erniopeko martxako parte-hartzaileak ikus daitezke Albizturko plazan jarri zuten janari postuan. JOXEMI SAIZAR

NOELIA LATABURU

Abian da dagoeneko Albizturko Arkaitz elkarteak Udalarekin elkarlanean antolatutako X. Kultur Astea; eta «adin eta gustu guztietarako» ekitaldiekin, gainera.

Lehen ekitaldia aurreko astean burutu zuten, Phuta Hiunchuli espedizioko mendizaleen hitzaldia, alegia; «arrakastatsua» izan zela jakinarazi dute antolatzaileek eta herri kanpoko jende asko ere hurbildu zela Albizturko Kultur Etxera.

Kultur Aste hau Arkaitz elkartearen 1995. urteko sorrerarekin batera hasi zen. Izan ere elkarteak, gastronomikoa den arren, Udalarekin urtero Kultur Astea antolatzearen

konpromisoa hartu zuen. Ordainetan, elkarteak ez du errentarik ordaintzen lokalaren truke. Orduetik, Arkaitzeko buru-belarri aritzen dira ikuskizun egokienak aukeratzeko eta herritarren gustuko ekitaldiak antolatzeko. «Herritarrek oso erantzun ona ematen dute gehienetan», adierazi dute antolatzaileek, beti ere ekimen batzuk «arrakastatsua» direlarik.

Xedea, herria dinamizatzea

Bestalde, herria dinamizatzea dute xede elkarteak eta Udalak. Hauen esanetan, «herriarekiko elkar lotura sortzea da politena». Halaber, egun hauek elkartearen atek herritar guz-

EKITALDIAK ▶

Kultur Asteko ekitaldiak datozen bi asteetan zehar banatuko dira.

EGUNEZ EGUN

Gaur. Txibistoren erbia izeneko eskolako haurren antzerkia, 19:30etik aurrera eskolan.

Bihar. Bertso afaria elkartean 20:30ean, Maialen Lujanbio eta Joxe Agirre bertsolariekin.

Maiatzak 27 (Asteazkena). Iñaki Alberdi rally pilotoareen hitzaldia izango da 20:00etan Kultur Etxean. Bertan ikusgai izango da erabiltzen duen Toyota celica.

Maiatzak 29 (Ostirala). Herriko mugak ikusteko ibilaldia, 08:00etatik aurrera. Irteera herriko plazatik. Ondoren hamaiketakoa. **Ekainak 5 (Igandea).** Landarbaso abesbatzak emanaldia eskainiko du 12:00etan elizan.

tientzat irekitzeko erabiltzen dituzte. «Urtean zehar ez bezala, denek dute aukera elkartera etortzeko». Hori dela eta, maiatzaren 29rako antolatutako ibilaldiaren ostean, hamaiketakoa eskaintzen da bertan denentzat.

Bi hitzaldi, antzerki emanaldi bat, bertso afari bat, herriko mugak ikusteko ibilaldi bat eta abesbatzako emanaldi batek betetzen dute aurten Kultur Astearen agenda.

TOLOSA ▶

Gazte bat atxilotu dute lapurretara egiteagatik

Ertzaintzak Zornotzako 19 urteko gazte bat atxilotu zuten herenegun Tolosan, Lizartzako anbulatorioan errezetak lapurtzeagatik. Gaztea, lapurretaren ostean, motor bat lapurtu eta errezetak hauekin sendagaiak erosi nahi izan zituen, Tolosako hainbat farmaziatan. Halaber, aurretik, Donostian ostutako kreditu txartel bat zuen.

IBARRA ▶

Bi kontzertu bihar Gaztetxean

Bihar 22:30etik aurrera NCC taldearen ordez, Eloorrioko punk rocker talde bat ariko da DIRTIES taldearekin batera, Ibarrao Gaztetxean.

ZIZURKIL ▶

Darkey Blues Band taldearen kontzertua

Gaur 23:00etan Zizurkilgo Aurrera tabernan Darkey Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du. Sarrera doakoa da.

IBARRA ▶

Eskultura eta pintura erakusketa

Puerto Iglesias pintorearen eta Manuel Iglesias eskultorearen erakusketa dago ikusgai Benito Izagurre kultur etxean ekainaren 3a bitarte 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

PILOTA ▶

11 neurketa gehiago jokatuko dira asteburuan

ERREDAKZIOA

11 norgehiagoka izango dira, gaur eta bihar bitarte, Albiztur eta Adunan, alebinen eta infantilen maila dagozkienak. Hauek izango dira lehiatuko diren bikoteak: Zelaia-Labaka eta Lucia-Mancisidor; Eskudero-Jauregi eta Encinas-Arandia; Gorostidi-Goitia eta Matxinea-Arratibel; Senperena-Gaillaraldea eta Etxenike-Mujika; De la Sotilla-Dorronsoro eta Les-Zinkunegi; Olaetxea-Mujika eta Urbieta-Urbieta; Otaegi-Iraola eta Aldasoro-Insausti; Sukia-Arzelus eta Altuna-Galarria; Galartza-Iribarren eta Manterola-Garikano; Otaegi-Saralegi eta Amiano-Mujika; Mangas-Ibargoien eta Larrea-Resola.

Bestalde, herenegun ere lau partida izan ziren Bidanien. Emaizak honakoak izan zirelarik: Esnaola 18-Fernandez 15; Errazkin 14-Jaunarena 18; Artola 18-Salaberria 4; Iburguren 18-Alduntzin 15.

ALEGIA ▶

Larrañagaren aldeko sinadurak Kongresuan

N. LATABURU

Paco Larrañagaren aldeko 100.000 sinadura aurkeztu zituen atzo bere familiak Espainiako Kongresuan, iragan apirillean Filipinetan Larrañaga gaztea bisitatu zuten legebitzarreko ordezkariak lagunduta. Ondoren, Kongresuko bilkuran honen aldeko adierazpena sinatu zuten.

HITZA

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'EL GRAN GOLPE' filmerako 2 sarreren irabazlea: **ASUN LOPETEGI** HITZAren harpidedun laguntzaile tolosarra.

▶ **ARANDIA JATETXEAK** oparitutako 4 laguntzako bazkari edo afari ederraren irabazle den harpidedun laguntzailea: **ITZIAR AIZPURUA (LEABURU)**



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

IBARRA ▶ GIZARTEA

Zerbitzatu dituzte plazan lehen zerbeza pittarrak

Gazte Asanbladak, Gari Urangak, 'Xandadio'-k eta 'Boli'-k ireki dute azoka

INIGO TERRADILLOS

Atzo ireki zituen ateak Ibarrrako II. Garagardo Festak. Arratsaldean izan zen, hasiera eman zion txupinazoaren eta zinta mozketaren unea. Herriaren alde lan egin duen talde batek eta pertsonaia ezagunen batek omenaldi gisara izaten du horren ardura. Ondoren beraie zerbitzatzen diete lehen garagardo pittarra eta afaltzera gonbidatzen dituzte.

Aurten, Ibarrrako Gazte Asanblada omendu nahi izan dute antolatzaileek «urtero, Ibarrrako Gazte Festak, futboleko 24 orduak, kontzertuak, kultur aste... antolatzeagatik, baina batez ere udako aire libreko zine emanaldiak antolatzeagatik, udako gau beroei bixigarria eman eta haur, gazte nahiz heldu elkartzegatik». Bestalde, Errealeko Gari Uranga «zeilaian erakusten ari den ibartar kastarengatik», eta *Xandadio* eta *Boli* mendizaleak ere omendu nahi izan dituzte. Azken hauek, datorren maiatzaren 24ean emango diote hasiera Alaskako espedizioari.

Omenduei eta festari hasiera ofiziala eman ziotenei zerbitzatu zieten lehen zerbeza pittarra eta ondoren afarian bildu ziren beste hainbat herritarrek inbater. Gauean, Berriozarko re-

agge musika taldearen doinuak izan ziren entzungai Garagardo festaren karpa barruan.

Igandea bitarte iraungo du festak Ibarrrako plazan 18:00-etatik aurrera. Zerbeza eta kalimotxo berezietz gain, ekitaldi ugari izango dira. Gaur 22:00-etan Limerick taldea izango da, eta atsedenaldian kalimotxo dastaketaren proba. Bihar arratsaldean ume jokoak izango dira eta gauean euskal makila borrokaren erakustaldia txalapartz lagundurik, eta igandean 19:00etan aizkolariaren apustua.



Boli mendizalea zinta mozketako unean, atzo. N.LATABURU



Lehenengo pittarrak zerbitzatu zizkieten Boli, Uranga, Gazte Asanbladako ordezkariak eta Xandadiori. I.T.

BERROBI ▶ KULTURA

Ikasleen emanaldiak eta Literatur Lehiaketako sari banaketa izango dira gaur

Berrobiko XV. Kultur Asteko ekitaldietan herritar ugari ari da parte hartzen

I.TERRADILLOS

Berrobiko XV. Kultur Asteak aurrera darrai. Gaurko egitarauan gaztetxoak eta euren dohaiak izango dira protagonista, izan ere, 17:30ean Etxolan eskolako ikasleen emanaldia izango da ikusgai. Antzerkia, olerkia, musika... eskainiko dute. Eta ondoren, Literatur Lehiaketako sari banaketak

egingo dira. Azken hilabetean aurkezten joan dira gaztetxoak literatur lanak, eta gaur izango da lan onenak saritzeko unea. Ekitaldi hauek amaitzean buruhandiek alaituko dute giroa.

Bihar, berriz, Kultur Astearen azken eguna izango da. 17:00etan toka txapelketa, 17:30ean pilotalekuan Pirritx eta Porrotxen *Patata patata* emanaldia, eta 19:15ean uda-



Eskulan erakusketa ikusgai izan zen atzo arratsaldean. I.TERRADILLOS

letxe aurrean txakoli dastaketa egingo da.

Atzokoan, Urreburuko gaztetxoan pilota partidak izan ziren ikusgai. Arratsaldean zehar,

herritarrek egindako eskulan erakusketa ere zabaldu zuten udaletxean, eta gauean Solastokian *¿A donde va esa loca?* antzezlanak izan zen ikusgai.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbolak: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika: 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaurdi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi tupa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santamaria, I. Nafarroa

etorbidea 2 (Tolosa).

943 65 46 10

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ HERRI KONTSULTA

Igandeko herri kontsultaren kanpaina azken txanpan sartuta dago jadanik

«Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderaren inguruan, Talde Sustatzaileak ez ezik, alderdiak ere beren iritzia plazaratzen ari dira; gaurko bi mahai-inguru daude iragarrita: irratian bata, Aurreran bestea.

JAIONE ASTIBIA

Igandean «Leitzan harrobirik bai ala ez?» galderarekin egindako herri kontsultaren informazio kanpainak azken eguna du gaurkoa. Dagoeneko herriko talde desberdinek beren iritzien plazaratzei azken ukituak ematen ari dira.

HITZAK, guztiei galdegin die eta denek erantzun dute, baina UPN taldeak iritzirik ez ematea aukeratu zuen, taldeko kide den Zubiturrek adierazi zuenez, «afiliatuekin egin berri dugun bileran, gai honen inguruan bileretan adosten dena bakarrik adierazteko ematekotan gelditu ginen. Ez gurela guk bakarrik zeren ibilirik eta, beren babesa agertu ziguten. Horrela, taldeak erabakitzen duena babestuko dugu. Orduan, haiekin kontsultatu gabe ezin erantzun dezaket», zioen

GALDERAK ▶

1. Maiatzaren 22an lehendabiziko aldian izanen da herri kontsulta egiten dena. Zer iduritzen zaio hori zuen taldeari?
2. Hain zuzen ere «Leitzan harrobirik bai ala ez?» izanen da galdera. Zer erantzun planteiatzen duzue? Zergatik?
3. Igandean egindako herri kontsultan aterako den emaitza kontutan hartuko du zuen taldeak? («hartu beharko lukete?» galdera Talde Sustatzailearentzat).

ERANTZUNAK ▶

GOTZONE SESTORAIN TALDE SUSTATZAILEA



1. «Oso aurrera-pauso garrantzitsua da, besteak beste horrelako gaiak udal ordezkariei esku geratzen badira soilik, arriskua izaten delako, herritarren iritzia eta interes orokorra kontutan hartu gabe erabakitzea. Hain garrantzitsuak diren gaietan herritarren iritzia eta interes orokorra kontutan hartu behar du. Horregatik sortu genuen taldea, eta zentzu horretan helburua lortu dugu».
2. «Erabakia hartu baino lehenago, harrobiak joan eta eskuratu dugun informazioa eta proiektuak aztertu ditugu, batez ere gertukoaren duguna, Albiñoko proiektua, eta horien ondorioak ikusita argi dugu ez dugula nahi Leitzarentzat ez horrelako eta ez antzeko harrobirik ere. Egiten duten kalte ekologikoak gainera, landa-eremuen deuseztapena eta herritarren bizitza kalitatearen okertzea dakarrelako. Uste dugu, jadanik, leitzarrok prezio nahiko altua ordaindua dugula, eta ingurugiroa errespetatuz, guztiontzat onuragarri izango den Leitzaren ereduaren pentsatzen hasteko garaie dela.»
3. «Dudarik gabe, baietz. Horretarako behar etiko, moral eta politikoa dute».

MARIAN ZESTAU LARRAIN



1. «Guk uste dugu herri kontsulta oso tresna baliagarria dela, herritarren iritzia ezagutzeko, herritar guztiek dutelako iritzia emateko aukera. Eta bertan parte hartzeko deia egiten dugu gainera. Oso garrantzitsua da. Bestalde, egungo udal ordezkariek ez direnez herritar guztion ordezkariei, orduan eta gehiago».
2. «Larrain ezetzaren aldekoa da zalantzarik gabe. Edozein harrobirik onurak baino kalte gehiago ekartzen dizkielako herritarrei eta herriari. Alde batetik herriaren garapena zehazteko garaian, ez dugu inolaz ere harrobirik planteatzen. Beti bultzatu behar dira, natura errespetatuz, egiten diren jarduerak eta harrobiak horren guztiz kontrakoak dira, mendia, natura, nekazal-eremuak... txikitzen dituzte. Ez dakur onurarik harrobien ustiatetarako. Ezkertiar ikuspuntutik gaineratu behar da, horrelakoek pertsona gutxi batzuen onura besterik ez dutela bilatzen eta ez herritar guztientzako, beraz, guztiz aurka gaude».
3. «Herri kontsultaren aldekoak garen neurrian, noski baietz. Ez errespetatzen, alferrik ari gara».

PATXI SAENZ ARALAR



1. «Oso tresna egokia da, demokratikoa. Ezin daiteke egunero egin, noski, baina gai estrategikoetan, oso garrantzitsuetan, ingurugiroari lotutakoetan eta, egin beharreneko. Oso baliotsua, adostasunez aritzea ere galdera erabakitzerakoan, kasu honetan bezala. Jendeari esan genioke parte hartzeko. Oso garrantzitsua dela».
2. «Ezekoa ematea da gure erantzuna. Alde batetik, harrobi bat egitea da naturari egin daitekeen erasorik handiena, berreskurazina delako; onurak baino kalte handiagoak direlako; Leitzak bere kuota ekologikoa ordaindua duela iruditzen zaigulako (harrobi tikiak, 60 hamarkadako hirigintzako astakeriak, haize errotak, Iñurrista...) eta harrobiak gaindituko genduz; Kamioien pasaera kaltegarria da guztiz herriarentzat; eta sortuko lirakeen lanpostuak ez direlako esangarriak. Horiek, lanpostuak, industrialdean sortu behar direla iruditzen zaigu guri».
3. «Aralarrek kontutan hartuko du, noski, ateratzen dena, ezekoa ateratzen bada, eta bestela ere bai, edozein emaitza aterata ere».

JUAN JOXE LAZKANO EUSKO ALKARTASUNA



1. «Herri galdekaren aldekoak gara, gauza garrantzitsuak direnean baliabide hori erabiltzeko. Orain, jakin beharko litzateke erabakitzen, zein gaitan bai eta zeinetan ez. Mugak jartzen ere jakin behar da hor, nahiz eta pertsona bakoitzak mugak jarri erabakitzerakoan bere iritzia izan. Hori da ongi erabaki beharrekoa. Kasu honetan, ordea, herri kontsultaren aldeko jarrera dugu, hasieratik babestu genduen».
2. «Galdera berari buruz esan behar, batzarrean momentuan hartutako erabakia izan zela, eta beste bat egokiagoa izan zitekeela akaso, gaia mugitu zuena Albiñoko proiektua izan zelako. Orain gure taldearen iritzian, ikusten dugu, bati buruz egitea zuzenagoa zela. Hori esanda, jendeak bere bozka ematerako, behar bezala informatu behar du, alde guztietakoak ikusi, noski, hori zuzena izanez. Eta gure alderditik diogu, bakoitzak erabaki dezala bere postura eta horren arabera bozkatu».
3. «Herri kontsultako emaitza ez errespetatzen alferrik ari gara. Guk ontzat hartuko dugu ateratzen dena».

LEITZA ▶

Kometen tailerra bihar 10:00etan udaletxean

J. ASTIBIA

Bost eta 12 urte bitarteko haurrei bideratuko tailerra izanen da bihar goizean, irakasle, guraso talde bat izanen dutelarik bertara biltzen direnek.

LEITZA ▶ KIROLA

Pilotako hainbat eta futbolearen ere partidu mordoska

Aire librean jostatzeko ez ezik, txapelketa zorrotzak ere badira asteburu honetan Leitzan

J. ASTIBIA

Nagiak botatzeko aukera bada honetakoan, nahi duenarentzat. Pilotan Herriarte Txapelketako saioak Leitzak jokatzea egokitzen dira. Bihar goizean dute egina Aurrerakoek

hitzordua, Amazabal pilotalekuan. Arratsaldean 16.00etatik aurrera plazan ariko dira Eskuzko binanakoan, eta koadriren arteko futbol txapelketan, berriz, arratsalde osorako badute lana, 14:00etan hasi eta iluntzera bitartean.



**Leitzan, Maiatzaren 22an
HERRI KONTSULTA:
Leitzan harrobirik bai ala ez?**

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 20a, ostirala ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaia, Aduna, Abatub, Alegia, Alkiza, Alzo, Amorebieta, Ansoa, Anso, Balamán, Belauntza, Berastegi, Berrozi, Esluán, Hernialde, Irujo, Irujo, Lazkao, Lizartza, Ondain, Orens, Tolosa, Vilabona, Zuzaldi
besteriak: Leizaldekoko Euskara Batzardea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

13

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Feroak eta faq mintegia KZgunean 10:00etatik 12:00etara. Izen-ematea, 943 59 17 15 (M.Carmen).

Albiztur. Eskolako haurren Txibistoren arbia antzerkia, eskolan 19:30ean, Kultur Astearen barruan.

Anoeta. Bertsorik gabeko antzerkia herritar talde baten eskutik: *Ama begira zazu*. Frontoian 22:30ean.

Berrobi. Eskolako ikasleen emanaldia: antzerkia, olerki, musika... Etxolan 17:30ean. Jarraian literatur lehiaketako sari banaketa eta buruhandiak.

Ibarra. II. Garagardo Festa plazan 18:00etatik 24:00etara: txupinazoa 18:00etan, Limerick taldearen kontzertua 22:00etan eta atsedendian kalimotxo dastaketa proba.

Ikaztegieta. *Zahartzaro osasuntsu batez gozatzeko bideak* hitzaldia, hirugarren adinekoei zuzenduta bereziki, 17:00etan liburutegian.

Irura. Kultur Astearen barruan, 17:30ean argazki eta ipuin lehiaketetako sari banaketa. Ondoren Irrintzi taldeko Patxi Ramirezen ipuin kontaketa, Kutxak babestuta.

Tolosa. Txinparta elkartearen 75. urtemugan, erremontista profesionalen arteko partidak 19:00etan Beotibarren, tartean Zeberio II. eta Altuna I.aren artekoa.

Tolosa. Andoni Agirregomezkortaren monologoa Irtatz tabernan 23:00etan.

Villabona. Udaleku irekietarako begiraleak behar dira. Izen-ematea Euskara Zerbitzuan. Gaur da azken eguna.

Villabona. Gaztearen I. urteurrenoko ekitaldien baitan, umeentzako ipuin kontalaria izango da 17:30ean eta merendola. 22:30ean Disturbio eta Txinaski taldeen kontzertua.

Villabona. Katekesiaren amaierako Danborrada 19:00etan Satorratik hasita.

Zizurkil. Biharko afarirako izen-ematea Aurrera udal bulegoetan. Igandean egingo den VII. Biatloirako izen-ematea 943 69 30 66 telefonoan edo Aurrerako bulegoetan. Gaur da azken eguna.

KIROLAK

GAUR

Areto futbol

▶ Zarautz-Trans.Lakunza



Orkestraren deialdia

TOLOSA ▶ Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak 25. urtemuga du eta ekainare 26an kontzertua eta bazkaria egin nahi du urte hauetan partaide izan diren guzietan. Izena emateko deitu 619 738 000 (Joxe) telefonora edo idatzi suanblai@euskalnet.net-era. HITZA

(Autonomikoa. Antoniano 18:15).

▶ Eskolapioak B-Koxka taberna (1. Maila A. Eskolapioak 20:45).

▶ Laskorain-Errotaundi Lazkao (1. Maila A. Berazubi 21:15).

▶ Tinta Billabona-Laskorain (Neskak. Kopa. Olaederra 20:45)

BIHAR

Futbola

▶ Tolosa-Anaitasuna (Goren Maila. Berazubi 12:30).

▶ San Ignacio-Tolosa (Federazio Kopa. Jubenilak. Adurtzabal 11:30).

▶ Amaro-Union Txiki Touring (Lurraldeko 2. Maila. Kopa. Finalerdia. Elorri 15:30).

▶ Intxurre-Beti Gazte (Jubenil 1. Maila. Elorri 11:30).

▶ Billabona-Sporting Herrera B (Jubenil 1. Maila. Arratzain 17:00).

▶ Beti Ona-Tolosa (Neskak. Igoera fasea. Beraun 15:30).

Areto futbol

▶ Hegoalde-Ourense (Ohorezko maila. Berazubi 19:00).

▶ Beti Arin-Laskorain (1. Nazionala B. Larrea 17:30).

Futbol 7

▶ Robers-Ibarrako Gazte Asanblada (1. Maila. Andoain 1. 17:00).

▶ St.Etienne cafe bar-Bar Shanti Kirolak (2. Maila. Andoain 1. 16:00).

Pilota

▶ Beasain-Anoeta (Eskuz. Beasain 16:00).

▶ Alegia-Lazkao (Eskuz binaka. Alebinak. Alegia 16:00).

▶ Elordi Herrigintza-

Mundarro (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).

▶ Alde Zaharra-Aurrera Saiaz (Eskuz binaka. Infantilak. Ikaztegieta 16:00).

▶ Aurrera Saiaz 2-Bergara (Eskuz binaka. Infantilak. Lazkao 17:00).

▶ Behar Zana-Lagunak (Eskuz binaka. Infantilak. Lazkao 17:00).

ETZI

Pilota

▶ Tolosa-Zumaia (Zesta punta. Santa Luzia 10:30).

Saskibaloia

▶ Altza-Aralar Kirolak (Nagusiak. Altza 12:00).

Pilota

▶ Cristaleria Langlass-Lanbroa Dickens 82. Maila. Andoain 1. 11:00).

MUSIKA

Irura. Mission 439 diskoetako 1. salan Dj Julius eta Dj Rober jazz ariko dira eta 2. salan Dj Txidj Bou. Zabaliak 23:30etik 06:30era.

Ibarra. Elorrioko punk-rock talde bat eta Dirties Elorrioko taldeak Gaztebean 22:30ean, garagardo festaren baitan.

Larraul. Bi biolinez, txelo batez eta piano batez osatutako 6 k Ote taldea Ostatuan 22:30ean.


Tolosa. Kaotikok eta Slikonay 22:30ean Bonbernean.

Villabona. Helena Orkoien soprano eta Ana Iparragirre piano jole Gurean 20:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El gran golpe.* Leidor zineman 22:30ean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Izaro Calvano Lopez (Ibarra). Urte askoan guapa!!!


Noiz presentau behar digun jendillaje hau? Muxu bat farolilla!!!



ZORIONAK

Car eta Lierni (Australia eta Ibarra).

Lehen bezain zoriontsu segi eta ongi pasa dezazuela egun berezi honetan. Zeinek jarri ote du?



ZORIONAK

Timotea Larreta (Ibarra).

Beti bezain mailekorra izaten jarraitu, denontzati berezia zara eta.



ZORIONAK

Jon Ander eta Maider (Amezketeta-Aduna).

Urte askotarako, pareja! Segi horrela denbora askoan! Larreta familiaren partetik bihotz-bihotzez.



URTE ASKOAN

Mari Carmen Egibar (Villabona).

Muxu handi bat etxekoan partetik, batez ere Unai, Haritz, Jokin eta Harrieten partetik.



URTE ASKOAN

Aritz Larreta (Amezketeta).

Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Ander Tejedor Saizar (Tolosa).

Gaur 5 urte. Muxu handi bat gure etxeko futbolariarentzat.



URTE ASKOAN

Carmen Zelaia (Belauntza).

Egun zoriontsua pasa dezazula familiarekin. Muxu bat. Lagun on baten partez.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea 5, atzea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!